

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

31/2023 Foru Agindua, martxoaren 8koa. Laneko medikuen lan-poltsa eratzeko deialdia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren eremuan lanpostu bat betetzeko eta aldi baterako lan-mediku bat izendatzeko beharra dagoenez, laneko medikuaren lanpostuari dagokion lan-poltsa bat deitu behar da.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77.1 artikulua ezartzen duenez, bitarteko funtzionarioen hautaketa prozedura arinen bidez egingo da, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, publikitatea eta lehia askea bermatuta.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia onartzen duen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, laneko medikuaren lanpostuari dagokion lan-poltsa eratu behar da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua erekin lotuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea laneko mediku lanpostuari dagokion Lan-poltsa eratzeko deialdiaren oinarriak, Foru Agindu honen eranskinean agertzen direnak.

Bigarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kudeaketako zuzendaritzaren esku uztea deialdi honen xede den lan-poltsa eratzeko ebazpena.

Hirugarrena. Foru-agindu honen aurka, argitaratu eta bihamunetik aurrera, administrazio-arekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 AAJLren 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua erekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

ERANSKINA**ONARTZEA LANEKO MEDIKU LANPOSTUARI DAGOKION LAN-POLTSA ERATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK****LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

1.1.- Deialdi honen xedea Laneko Mediku lanbide-kategoriarako lan-poltsa eratzea da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari atxikitako plantillako langileen aldi baterako beharrak betetzeko, Administrazio Bereziko Eskalakoak izanik, Teknikarien Azpieskala, Goi Mailako Teknikaria, A Taldea (A1), legez aurreikusitako edozein modalitatetan bitarteko funtzionario gisa aldi baterako betetzeko.

Hautaketa-prozedura lehiaketa-sistemaren bidez egingo da.

Ordainsaria aldi baterako betetzen den lanpostuari dagokiona izango da, eta funtzioak ere lanpostu horri dagozkionak izango dira.

1.2.- Deialdi honek, bere oinarriekin batera, administrazioa eta bertan parte hartzen dutenak lotzen ditu.

1.3. Poltsa honetan sartutako izangaiei honako xedapen hauek aplikatuko zaizkie, besteak beste: 80/2021 Foru Agindua, maiatzaren 20koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia onartzen duena aldi baterako zerbitzuak emateko; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa, eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

1.4. Oinarri hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da izangaien hautaketa-prozesua.

BIGARRENA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Hautapen-prozesuan parte hartu ahal izateko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Medikuntzako lizentziatu titulua izatea, Laneko Medikuntzako espezialitatean, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.
- b) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan etorri askea aplikatzeko zaion estaturen bateko herritartasuna izatea. Halaber, Europar Batasuneko estatuak herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.
- c) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- d) Gaitasuna: Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez izatea, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen aplikazioa aparte utzi gabe.
- e) Gaikuntza: Diziplina-espeditu batez edozein herri-administrazio edo autonomia-erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzuetatik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, edo lan-kontratuko langileen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez

egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Era berean, horiek guztiak eduki beharko dira hautaketa-prozeduran zehar, bitarteko funtzionario izendatzeko unean eta aurrerantzean. Gaitasun funtzionalari dagokionez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ziurtatu beharko du, bitarteko funtzionario izendatu aurretik.

Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako betekizunak, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

3.1 Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek 10 egun baliouduneko epea izango dute eskabidea aurkezteko, deialdiaren iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu-atarian ere argitaratuko da deialdi hori.

3.2. Eskaera modu elektronikoa aurkeztu beharko da, eredu ofizial eta normalizatuaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atariaren bitartez. (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/). Eskaeran, 3.4 apartatuan aurreikusitako tasaren ordainketa telematikoa jasoko da.

Eskaerarekin batera ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, Kalifikazio Batzordeak eskatzen duen unean egiaztatu beharko baitira alegatutako merezimenduak.

Tituluaren eta NAN/AIZren jatorrizkoak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoan aurkeztu beharko dira, lehenengo izendapena egin behar denean. Lan-poltsarik ez badago edo faltsua bada, lan-poltsan sartzeko eskubidea galduko da, hargatik eragotzi gabe izangaiak dokumentuak faltsutzeagatik izan ditzakeen legezko erantzukizunak.

3.3 Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betez, hautaketa-prozesuak kudeatzeko biltzen diren datuak Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak kudeatzen duen fitxategian sartuko dira. Zuzendariordetza hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariaren 2015eko martxoaren 31ko Erabakiaren bidez sortu zen (2015eko maiatzaren 15eko ALHAO, 58. zk.) Kudeaketako Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduraduna, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Bulego Nagusiko egoitzan (San Prudentzio kalea 30, Vitoria-Gasteiz) erabili ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzen dutenek berariaz baimentzen dute, kontrakorik adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helbururako erabiltzea, bai eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak euskararen ezagutza-maila egiaztatzea ere, informatika-ezagutzen ziurtagirietarako bezala.

3.4. Deialdian izena emateagatiko tasak

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokien tasak ordaindu beharko dituzte, maiatzaren 16ko 12/2005 Foru Arauaren laugarren artikuluan adierazitakoaren arabera (12/2005 Foru Araua, maiatzaren 16koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasak ezartzekoa, Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriak aldatua). Tasa hori 30 eurokoa da.

Ez da bidezkoa izango deialdian izena emateagatiko tasa itzultzea, eskatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik.

LAUGARRENA.- ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDIA.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda argitaratuko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren ebazpen bidez (www.araba.eus/ifbs/portalempleo), eta 3 egun balioduneko epea zabalduko da, argitaratu eta biharamunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta erreklamaziorik egonez gero, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren ebazpen bidez argitaratuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda, eta ebazpen horretan bertan adieraziko da Kalifikazio Batzordearen osuera.

BOSGARRENA. KALIFIKAZIO-BATZORDEA.

Kalifikazio Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

MAHAIBURUA:

GOFeko Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa edo hark eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.

BOKALAK

A (A1) taldeko bi karrerako funtzionario, titulaziokoak, edo karrerako funtzionario bat, haiek eskuordetzen dutena. Horietako batek idazkari-lanak egingo ditu.

SEIGARRENA.- PROZESUAREN GARAPENA. MEREZIMENDUA

Hautaketa-prozesua merezimenduak baloratzeko fase bakar batean egituratuko da, eta gehienez ere 24 puntu lor daitezke, euskararen ezagutzari dagozkion merezimenduak kontuan hartu gabe.

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu eta Kalifikazio Batzordea osatu ondoren, Kalifikazio Batzordeak 5 egun balioduneko epea emango du izangaiek merezimenduak aurkezteko eta alegatzeko, baremo honen arabera:

A) Graduondoko prestakuntza akademikoa: Gehienez ere, 4 puntu emango dira.

A.1. VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatuan, Industria Higienean eta Laneko Segurtasunean/Industria Segurtasunean Laneko Arriskuen Prebentzioko goimailako eginkizunak betetzeko gaitzen duen titulazioa. Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 37. artikulua, VI. eranskinean. 3 puntu, gehienez (puntu 1 ikastaro bakoitzeko).

A.2. Doktore titulua, deitutako plazari dagozkion gaietan: Puntu 1.

B) Lanbide-esperientzia: Gehienez ere 15 puntu lor daitezke.

B.1 Herri Administrazioan medikuen A taldeko (A1) Laneko Medikuntzako espezialitateko lanpostuetan egindako zerbitzuak baloratuko dira. Gehienez ere 12 puntu emango dira, hilabete bakoitzeko 0,30 puntu.

B.2 Herri Administrazioan Medikuen A (A1) Taldeko lanpostuetan egindako zerbitzuak baloratuko dira, Laneko Medikuntzako ez den edozein espezialitatetan, gehienez 3 punturekin, hilabete bakoitzeko 0,10 puntu.

Lan egindako hilabete oso bakoitzeko balioetsiko dira. Ez dira baloratuko hilabetetik beherako soberakinak. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanalditzat hartuko dira.

Emandako zerbitzuak dagozkien ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira, Herri Administrazioan aurretiazko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak ematen dituen ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren I. eranskinaren arabera. Egindako zerbitzuen ziurtagirietan, urteetan adierazitako denbora hilabeteka aldatuko da, urteko hamabi hilabetetan, eta egunetan adierazitakoa hilabeteka, hilabeteko hogeita hamar egunetan.

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arteko zerbitzuak bakarrik baloratuko dira.

C) Informatika ezagutza

Gehienez ere 5 puntutaraino IT Txartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	1,0
Microsoft Word 2010 aurreratua	1,0
Microsoft Word 2007 aurreratua	1,0
Microsoft Excel 2010 aurreratua	1,0
Microsoft Excel 2007 aurreratua	1,0
Microsoft Access 2010 bakarra	1,0
Microsoft Outlook 2010	1,0
Internet aurreratua	1,0

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak balio gabetu egingo ditu aurreko bertsioenak.

ZAZPIGARRENA.- EUSKARA

Jarraian adierazitako euskararen hizkuntza-eskakizunaren balorazioa egingo da:

- 3. hizkuntza-eskakizuna: 3 puntu

Baloratu ahal izateko, alegatu beharko da IVAPeko 3. hizkuntza-eskakizuna edo beste edozein ziurtagiri baliokide duela, uztailearen 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoaren arabera (187/2017 Dekretua, uztailearen 4koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena).

Merezimendu hori egiaztatzeko, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta egingo da.

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak bakarrik baloratuko dira.

ZORTZIGARRENA.- LAN-POLTSA EGITEA.

7.1. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, 5 egun balioduneko epea irekiko da merezimenduak egiaztatzeko. Izangaiek egiaztatutako merezimenduak

Kalifikazio Batzordeak baloratu ondoren, izangaien behin-behineko lehentasun-ordena onartuko da, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enpleguaren Atarian argitaratuko da.

Interesdunek 3 egun baliouduneko epea izango dute, behin-behineko lehentasun-ordena argitaratzen denetik aurrera, zerrendako datuei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, Kalifikazio Batzordeak, interesdunek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Kudeaketako Zuzendaritzari helaraziko dio bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa behin betiko onartzeko ebazpen-proposamena. Izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da lan-poltsa hori.

7.2. Deialdi honetako seigarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du azken puntuazioa. Berdinketarik gertatuz gero, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 20.4.a) artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko da.

Berdinketak jarraitzen badu, berdinketa hausten duen lehentasun-hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

1. Administrazio Publikoan egindako zerbitzuen atalean Medikuen A (A1) Taldeko Laneko Medikuntzako espezialitateko lanpostuetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde (seigarren oinarriko B1 atala).
2. Administrazio Publikoan egindako zerbitzuen atalean Medikuen A (A1) Taldeko Laneko Medikuntzako espezialitateko lanpostuetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde (seigarren oinarriko B1 atala).
3. Seigarren oinarriko A.1 atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde (Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuan, industria-higienean eta laneko segurtasunean/industria-segurtasunean laneko arriskuen prebentzioan goi-mailako eginkizunak betetzeko gaitzen duen prestakuntza akademikoa/titulazioa).
4. Seigarren oinarriko A.2 atalean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde (Prestakuntza akademikoa/Doktore titulua deitutako plazari dagozkion gaitetan).
5. Informatikako ezagutzen atalean puntuaziorik handiena lortu dutenen alde.
6. Euskararen jakite-maila handiena egiaztatzen duenaren alde.
7. Alfabeto-hurrenkeraren arabera, oinarri hauek onartzen diren egunean indarrean dagoen Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzupeko Langileen Sarrerari buruzko Erregelamendu Orokorraren 17. artikulua aipatzen duen zozketa publikoaren letraren arabera.

7.3. Prozesu horren ondoriozko zerrenda Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Atarian argitaratuko da, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia onartzen duen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren arabera arautuko da.

BEDERATZIGARRENA.- GORABEHERAK.

Kalifikazio-batzordeak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauek aurreikusi ez den guztian.

HAMARGARRENA. AURKARATZEAK

Interesdunek aurkaratu ahal izango dituzte oinarri horiek, haien deialdia eta horietatik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak, bai eta Kalifikazio Batzordearen egintzak ere, prozeduran aurrera egitea eragozten dutenak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.